# Iragarpenak

## Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

### BILBAOKO UDALAREN KIROL ERAKUNDEA

LEHIAKETA PUBLIKOA, Zorrozako kiroldegia eraikitzeko lanak esleitzeko dena. 1046

### DONOSTIA-SAN SEBASTIÁNGO UDALA

AKORDIOA, Donostia-San Sebastiángo Udalaren «Tolosa hiribidea eta Igarako Poligono arteko lotunearen proiektua»-n jasotako lanak egiteratzeko enkantea, aurrez onartua izan behar duelarik, iragarriz. 1048

# Anuncios

## Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

### INSTITUTO MUNICIPAL DE DEPORTES DE BILBAO

CONCURSO PUBLICO para la adjudicación de las obras de construcción del Polideportivo de Zorroza. 1046

### AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

ACUERDO del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián por el que se anuncia Subasta con admisión previa para la ejecución de las obras contenidas en el «Proyecto del enlace entre la Avda. de Tolosa y el Polígono de Igara». 1048

# Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

**452**

65/1995 DEKRETUA, urtarrilaren 23koa, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzan Koordinaziorako eta Administrazioa Eraberritzeko Idazkaritza Nagusia sortzen duena.

Jaurlaritzaren iharduera koordinatzeko egitekoak, hain zuzen ere lehendakariak berak agindutakoak egozten dizkio lehendakariordeari Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburua izendatzen duen urtarrilaren 3ko 4/1995 Dekretuak. Beharrezkoa da, beraz, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzan Idazkaritza Nagusi bat sortzea, horren bidez goian aipatutako egitekoak garatu ahal izateko.

Ezinbestekoa da, halaber, ezabatutako Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Saileko organoak Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren egituran sartzea. Hartara, Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzen dituen urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuaren gehigarrizko xedapenetatik bigarrenean ezarritakoaren indarrez, Lehendakariordetzari atxikita gelditzen dira organo horiek, dekretu horren 6. atalean ohartemandako ihardun-arloei dagozkien egitekoak betetzeko.

Kontuan hartzen bada, bestalde, Administrazioa Eraberritzeko Bulegoak bete behar dituen eginkizunak zelakoak diren eta, ondorioz, sailarteko koordinazio lanak egongo direla, bidezkoena bulego hori Jaurlari-

# Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**452**

DECRETO 65/1995, de 23 de enero, por el que se crea la Secretaría General de Coordinación y para la Modernización Administrativa en la Vicepresidencia del Gobierno.

El Decreto 4/1995, de 3 de enero, de nombramiento del Vicepresidente del Gobierno y Consejero de Hacienda y Administración Pública, atribuye al Vicepresidente las funciones de coordinación de la acción del Gobierno que el Lehendakari le encomiende. Por tal motivo, se hace precisa la creación de una Secretaría General en el seno de la Vicepresidencia del Gobierno, a través de la cual puedan desarrollarse dichas funciones.

Así mismo, es necesario integrar en la estructura de la Vicepresidencia del Gobierno los órganos del extinto Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico que, en virtud de la Disposición Adicional Segunda del Decreto 1/1995, de 3 de enero, de creación supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación, se adscriben a la misma para el ejercicio de las funciones relativas a las áreas de actuación previstas en el artículo 6 del mismo Decreto.

Por otra parte, teniendo en cuenta la misión que ha de cumplir la Oficina para la Modernización Administrativa, y las tareas de coordinación interdepartamental que ello supondrá, se ha considerado que lo más opor-

tzaren Lehendakariordetzari atxikitzea dela pentsatu dugu.

Ondorioz, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren behin-betiko egiturari bat ere kalterik eragin gabe, aipatutako premiei berehala erantzuteko, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8 c) eta 25. ataletan ematen zaizkidan ahalmenen indarrez eta Jaurlaritzaren lehendakariordearen proposamenez, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Sortzea.

1.– Jaurlaritzaren Lehendakariordetzan Koordinaziorako eta Administrazioa Eraberritzeko Idazkaritza Nagusia sortzen da.

2.– Koordinaziorako eta Administrazioa Eraberritzeko Idazkaritza Nagusiko titularrak sailburuorde maila izango du Jaurlaritzari buruzko Legean ezarritako ondorioetarako.

*2. atala.*– Egitekoak.

Koordinaziorako eta Administrazioa Eraberritzeko Idazkaritza Nagusiaren egitekoak hauek dira:

a) Lehendakariordeari lagunduko dio Jaurlaritzaren iharduera koordinatzeko egitekoetan.

b) Araubide Juridiko eta Autonomi Garapenerako Idazkaritza Nagusiarekin lankidetzan arituz, lehendakariordeari lagunduko dio Eusko Jaurlaritzaren legegintza programa prestatu, garatu eta jarraipena egiten, baita legebiltzarreko izapideak egiten ere.

c) Eusko Jaurlaritzaren Programa garatu eta betetzerakoan sailen ihardueren koordinazio orokorra eta arlokakoa egiteko, Jaurlaritzaren lehendakariordeak emandako jarraibideak beteko ditu.

d) Sailekin lankidetzan arituz, Jaurlaritzak hartutako konpromezu parlamentarioak nola betetzen diren zaintzeko jarraipena egingo du.

e) Jaurlaritzaren lanak eta Jaurlaritzari buruzko Legearen 22. atalean ohartemandako Batzordeen lanak antolatuko ditu.

f) Jaurlaritzaren lehendakariordeari lagunduko dio Eusko Legebiltzarrarekiko, Arartekoarekiko eta beste instituziekiko harremanetan.

g) Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren komunikazio eta informazio politika beteko du.

h) Sailekin lankidetzan eta Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren gainikuskapenaz, Herri Administrazioa eraberritzeko lanak zuzendu eta koordinatuko ditu.

*3. atala.*– Egitura.

Koordinaziorako eta Administrazioa Eraberritzeko Idazkaritza Nagusiaren menpekoak dira:

a) Koordinazio Zuzendaritza.

b) Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

tuno es su adscripción a la Vicepresidencia del Gobierno.

Por ello, con el fin de atender con carácter inmediato los requerimientos apuntados, sin perjuicio, de la configuración definitiva de la estructura de la Vicepresidencia del Gobierno, en virtud de las facultades que me confieren los artículos 8 c) y 25 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno y a propuesta del Vicepresidente del Gobierno,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Creación.

1.– Se crea, en el seno de la Vicepresidencia del Gobierno, la Secretaría General de Coordinación y para la Modernización Administrativa.

2.– El titular de la Secretaría General de Coordinación y para la Modernización Administrativa tendrá, a los efectos de lo establecido en la Ley de Gobierno, el rango de Viceconsejero.

*Artículo 2.*– Funciones.

Son funciones de la Secretaría General de Coordinación y para la Modernización Administrativa:

a) La asistencia al Vicepresidente en las funciones de coordinación de la acción del Gobierno.

b) Apoyar al Vicepresidente en la preparación, desarrollo y seguimiento del programa legislativo del Gobierno, así como en la de su tramitación parlamentaria, en colaboración con la Secretaría General de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.

c) Ejecutar las instrucciones del Vicepresidente del Gobierno sobre coordinación general y sectorial de las actuaciones departamentales de desarrollo y aplicación del Programa del Gobierno.

d) Seguir el cumplimiento de los compromisos parlamentarios adquiridos por el Gobierno en colaboración con los Departamentos.

e) La organización de los trabajos del Gobierno y de las Comisiones previstas en el artículo 22 de la Ley de Gobierno.

f) Asistir al Vicepresidente del Gobierno en las relaciones con el Parlamento, el Ararteko e interinstitucionales.

g) Ejecutar la política de comunicación e información de la Vicepresidencia del Gobierno.

h) Dirigir y coordinar los trabajos orientados hacia la modernización de la Administración Pública en colaboración con los Departamentos y bajo la supervisión del Vicepresidente del Gobierno y Consejero de Hacienda y Administración Pública.

*Artículo 3.*– Estructura.

Dependen de la Secretaría General de Coordinación y para la Modernización Administrativa:

a) La Dirección de Coordinación.

b) La Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento.

c) Administrazioa Eraberritzeko Bulegoa.

*4. atala.*– Koordinazio Zuzendaritza.

Koordinazio Zuzendaritzari hauek dagozkio:

a) Jaurlaritzaren Lehendakariordetzak egin ditzan koordinazio egitekoak betetzeko beharrezkoa den laguntza teknikoa emango du.

b) Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzarekin lankidetzan arituz, Jaurlaritzaren Programa garatu eta betetzeko Jaurlaritzak egin ditzan iharduerен plangintza, programazioa eta ebaluazioa burutzeko bide eman ditzaten teknikak eta metodoak ezartzea proposatuko ditu.

c) Jaurlaritzaren Programa betetzerakoan sailek landu ditzaten plan eta programa orokorrei edo arlokakoei buruzko berri emango du.

d) Jaurlaritzaren Lehendakariordetzak koordinatu behar dituen sailen iharduerен jarraipena egingo du.

e) Sailen arteko koordinazioari dagokionez agintzen zaizkion beste guztiak.

*5. atala.*– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailaren egitura organikoa finkatzen duen apirilaren 30eko 286/1991 Dekretuaren 8. atalean ohartemandako egitekoak betetzea dagokio Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzari.

*6. atala.*– Administrazioa Eraberritzeko Bulegoa.

Administrazioa Eraberritzeko Bulegoak Zuzendaritza maila izango du Jaurlaritzari buruzko Legean xedatutako ondorioetarako, eta Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzen dituen urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuaren 7.2. atalean egotzitako egitekoak beteko ditu.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailordetza integratu egiten da.

Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren menpekoa den Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailordetza Araubide Juridiko eta Autonomi Garapenerako Idazkaritza Nagusi bihurtzen da eta Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailaren egitura organikoa finkatzen duen apirilaren 30eko 286/1991 Dekretuaren II. atalburuko hirugarren sekzioan egotzitako maila, egitura eta egitekoak izango ditu aurrerantza ere.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egite-

c) La Oficina para la Modernización Administrativa.

*Artículo 4.*– Dirección de Coordinación.

Corresponden a la Dirección de Coordinación:

a) Prestar la asistencia técnica precisa para el ejercicio de las funciones de coordinación que realice la Vicepresidencia del Gobierno.

b) Proponer, en coordinación con la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, la aplicación de técnicas y métodos que permitan la planificación, programación y evaluación de las actuaciones del Gobierno encaminadas al desarrollo y ejecución de su Programa.

c) Informar sobre los planes y programas generales o sectoriales que se elaboren por los Departamentos en ejecución del Programa del Gobierno.

d) Llevar el seguimiento de las actuaciones de los Departamentos que sean objeto de coordinación por la Vicepresidencia del Gobierno.

e) Cualesquiera otras que se le encomienden en materia de coordinación interdepartamental.

*Artículo 5.*– Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento.

Corresponde a la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento el ejercicio de las funciones previstas en el artículo 8 del Decreto 286/1991, de 30 de abril, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.

*Artículo 6.*– La Oficina para la Modernización Administrativa.

La Oficina para la Modernización Administrativa, que tendrá el rango de Dirección a los efectos de lo dispuesto en la Ley de Gobierno, realizará las funciones que le atribuye el artículo 7.2 del Decreto 1/1995, de 3 de enero, de creación supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Integración de la Viceconsejería de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.

La Viceconsejería de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico, dependiente de la Vicepresidencia del Gobierno, queda configurada como Secretaría General de Régimen Jurídico y Desarrrollo Autonómico conservando a todos los efectos el rango, estructura y funciones que le atribuía la Sección Tercera del Capítulo II del Decreto 286/1991, de 30 de abril, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.

DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA

Modificación del Decreto 1/1995, de 3 de enero, de creación supresión y modificación de los Departamen-

koak eta ihardun-arloak finkatzen dituen urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretua aldatzen duena.

1.– Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzen dituen urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuaren 7. ataleko 2. lerroaldia dekretu horren 5. ataleko 2. lerroaldia izango da.

Ondorioz, testu horretan Ogasun eta Herri Administrazio Saila aipatzen denean Jaurlaritzaren Lehendakariordetza aipatzen dela ulertu behar da eta bi atal horien lerroaldien zenbakiak ere aldaketa honetara egokitu beharko dira.

2.– Dekretu horren gehigarrizko xedapenetatik hirugarrenaren 2. lerroldia ere, orain gehigarrizko xedapenetatik bigarrenaren 3. lerroaldia izango da.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko urtarrilak 23.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

tos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación.

1.– El párrafo 2 del artículo 7 del Decreto 1/1995, de 3 de enero, de creación supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación, pasa a ser el párrafo 2 del artículo 5 de dicho Decreto.

En consecuencia, las referencias que en dicho texto se realizan al Departamento de Hacienda y Administración Pública deben entenderse hechas a la Vicepresidencia del Gobierno y la numeración de los párrafos de ambos preceptos se adecuarán a esta modificación.

2.– Asimismo, el párrafo 2 de la disposición adicional tercera del citado Decreto pasa a ser el párrafo 3 de la disposición adicional segunda.

DISPOSICIÓN FINAL SEGUNDA

Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de enero de 1995.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

# Agintariak eta Langilegoa

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

**453**

69/1995 DEKRETUA, urtarrilaren 24koa, Koordinaziorako eta Administrazioa Eraberritzeko idazkari nagusia izendatzen duena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 18. ataleko j) idazatian, 26. ataleko 6. idazatian eta 29. atalean xedatzen denaren arabera, Jaurlaritzaren lehendakariordearen proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko urtarrilaren 24an egin zuen bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Koordinaziorako eta Administrazioa Eraberritzeko idazkari nagusi izateko, Idoia Zenarruzabeitia Beldarrain andrea izendatzea.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**453**

DECRETO 69/1995, de 24 de enero, por el que se nombra a la Secretaria General de Coordinación y para la Modernización Administrativa.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 18, apartado j), 26, apartado 6, y 29 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, a propuesta del Vicepresidente del Gobierno, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 24 de enero de 1995,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Nombrar a D.ª Idoia Zenarruzabeitia Beldarrain Secretaria General de Coordinación y para la Modernización Administrativa.